



UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Ekimen sozio-kulturalak (2017/10/20) Hurrengo saioa: 2017/11/03	Auzolana	Azaroak 18an burutuko da.	Hurrengo bileran zehaztuko dira lanak, beharrezko materiala, ordutegia, taldeak...
	Erretaula	Javier De Miguel azaroak 11n etorriko dela baieztatu digu nahi duten herritarrei erretaularen berezitasunak ezagutaraztea.	Komunikazio taldeari adierazi deialdia luzatu dezatela
		Dogram enpresak, erretaula 3D-n eta 1:1 eskalan filmatu behar dutela esan digute.	
		Udaberrian diputazioak erretaulari buruz hitzaldi bat egongo dela adierazi digute, bertan erretaulan eman duten lan prozesu guztia azalduko dutelarik.	
	Biolur-en ate irekien jaia Itsason	Astebukaerako egitaraua azaldu digu Gorka Sasietak.	
	Ibur zalditegiaren proposamena	Itsasoarroi eskaintza berezia luzatu digu Ibur zalditegiak, bertan larunbatetan beraien zerbitzuak(klaseak, paseoak) salneurri murriztuan eskaini dizkigu.	Eskaintza komunikazio taldeari adierazi herria jakinean jartzeko.
	Josteko makinaren tailerra	Pili Mintegik josteko makinaren tailer bat garatu daiteekela adierazi digu. Bertan makinaren mekanika, gaitasunak eta erabilerak adieraziko dira.	Abenduko zubian(6-8)egin daitekeen galdetu Piliri
	Jubilatuen bazkaria	Egutegia aztertu ondoren, azaroak 19n egingo dela adostu da.	



LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena Alegiako bilera (2017/10/ 15) Hurrengo saioa: 2017/11/04	Espaloia Irizar-eraino	Gorka Sasietak Foru Aldundiko Errepide zuzendariarekin, uztailaren 17a izandako bileran landutakoa azaldu du: espaloia Aroztegraino, eta zebra-bidea. Bestaldetik Agerreberriraino espaloia. Autobus geltokia Aroztegi parean.	GFAk proiektua egin eta exekutatu du. Gabiriako Udalak bere sailetan espaloia egiteko kudeaketa burutu beharko du.
	Parke berria	Azken proiektuari oniritzia eman zaio: parkean joango diren jolas baliabideak, iturria, eserleku, eta aurrerago zuhaitzen azpian helduentzako ariketa fisikorako elementuak, mahaiak... Bestalde, bi komun publiko (bata irisgarria dutxa eta ekipamendu osoarekin). Planoan ikus daiteke ranpa batez, oraingo plazatik plaza berrira eta, ondorioz, frontoiaren goialdera, irisgarritasuna nola bermatuko den.	Europatik datorren Leader programaren deialdia atzeratu da eta baita parke berriaren eraikuntza ere, baina laster abiatzea espero da.
	Frontoiko ordenantzak	Otsaileko bileratik zetozen proposamenak eta kirol jarduerak egiteko erreserbak kontuan hartuta, eguneratu dira.	Frontoian jarritako tabloian ezarriko dira denon ezagutzarako
	Landaneko hesia	Errepide zuzendariari, Uribetxeberria jaunari, Itsasora datorrenean nori dagokion hesi hauen berritzea galdetuko zaio	Itsason eliza azpiko espaloia aparkaleku bihurtzea proposatuko zaio
	Elizatik bidetxiorra Atsusain aldera, aparkaleku erreserba	Alegiako meza garaian bertan ezinduenek aparkatu ahal izateko, tokia erreserbatzeko nola jokatu aztertu da, baita kotxeek eliza atarirako sarbidea erabat oinezkoiei ez diezaiezaten itxi ere.	Zoruan marrak egin eta bidetxiorra agerian jarri
	Eserlekuak bide gorrian (eta zubia?)	Banku bat edo bi (ohikoak baino altuxeagoak) paseatzen dabilentzat jartzeko eskaera jaso da. Zubiaren auzian oraindik kontraesanak argitu gabe daude dagokien erakunderen artean (Uren zuzendaritza, Confederación hidrográfica del Norte)	Jartzeko garaian zein den lekuri proposena galdetu. Zubiarena argitu arte, ez da urratsik eman ahal izango



ITSASOKO
UDALA
(GIPUZKOA)

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2017/10/17) Hurrengo saioa: 2017/10/31	Konektibitatea herrian	Movistar enpresako komertzialaren bisita ostean, egindako eskaintza baloratu da eta Talaia enpresako eskaintzarekin alderatu da.	Movistarrek linea botatzeko eskatzen dituen terrenezaleen baimenak lortu
	Herri Batzarra	Herri Batzarrerako sortutako PPT-ak aztertu eta osatu. Auzolanerako lan proposamenen prozedura definitu eta taula sortu.	Herritarrei akta zabaldu
	Alegiko bilerako akta	Akta idatzi da eta azpiegituretako batzordean kokatua doa	